

KANALA

ECOTUPER-en salmenta: Nola iritsiko gara jendearengana?

Jendearengana iristeko bi eratara saltzea erabaki dugu: **internet bidez** eta **aurrez aurre (fisikoki)**. Hau da, jendeak etxetik edo dendara joanda eros dezake.

1. Internet bidez:

Gure produktua online saldu ahal izateko web-gune bat sortuko dugu.

Gure webgunearen helbidea:

<https://es.strikingly.com/s/sites/29585918/edit/design/?uid=d9a540cc-4231-7744-1e20-9b630b1d2181>

Hemendik gure tuperraren ezaugarriak egongo dira, gure erosleek zer motatakoa den eta nola fabrikatuta dagoen jakiteko. Bestalde, gure webgunetik erosi ere ahal egingo da, errez eta azkar erosketa egiteko. Webguneaz gain eskuragarri egongo da Dechatlon eta Amazon-en baita ere, jende askok konfiantza gehiago daukalako Dechatlon eta Amazon-engan, modu horretan seguruagoa iruditzen zaielako. Kasu hauetan, enpresa hauek produktuaren portzentai txiki bat irabaziko dute zehaztu zein portzentaia, haien enpresa kanal bezala erabiltzen ari garelako.

2. Fisikoki:

Hau da dendetan edo jendearekin aurrez aurre saltzea. Alde batetik, benda berezietan, ekologikoetan, Decathlonen (zer ikusia dauka mendira joaten diren pertsonekin) edo sukalde gauzak saltzen dituzten dendak. Jendeak bertan hartu eta berehala eraman ahal izango du. Beste aldetik, guk aurkezpenak egingo ditugu eta guk erakutsiko dugu nola funtzionatzen duen tupperrak. Horrela, jendeak zuzenean ikusi ahal izango du nolakoa den eta bertan erosi.

Zergatik bi modu?

Batzuetan, jendeak ez du dendetara joan nahi eta nahiago du internetetik erosi (ez dutelako denborarik denda fisiko batera joateko). Beste kasuetan, gendeari produktua fisikoki ikustea gustatzen zaio, ukitu dezalako eta konfiantza gehiago produktuarengan izateko. Arrazoi hauengatik, gure ustez askoz gehiago salduko dugu gure produktua publiko guztiak ikusi ahal badu, eta horregatik, bi moduak erabiltzea erabaki dugu.

Komunikazio kanala:

Jendeak Instagram, Facebook eta Tik-Tok erabiltzen ditu gauzak ikusteko. Hor gure tupperra erakutsiko dugu, argazki eta bideoekin. Bertatik zuzenean ere erosi ahalko dute. Bestalde, Webgune bat sortuko dugu; bertan jendea gurekin kontaktatu ahal dezan eta dudarik baldin badituzte guri kontaktatzeko ahalera izateko. Adibidez, herri batzuetan ez dago denda eskuragarria eta gure webgunea baliagarria izan daiteke.